

Paseka!

20-30 minutu / +5 urte

Oraingoan marrazkiak dituen alfonbra bat erabiliko dugu. Horrelakorik ez badugu, alfonbra gardena erabil dezakegu, edo 15x15eko espazioak kontuan hartuz, mapa txiki bat egin dezakegu.

Haurrak maparen inguruan eseriko dira eta bakoitza maparen zati batez arduratuko da.

Lehenengo irakaslea hasiko da. Robota kide bati pasatzeko programatuko du eta ondoren honek beste kide bati pasako dio.

Kontuz! Mapa kontuan izan, robotaren bidea programatzean.

Argazkian ikus daitekeen bezala, guk herriko mapa duen alfonbra bat erabili dugu. Haur bakoitza denda batean kokatzen da eta robota dendaz denda ibiltzen da. Karroa jarrita, erosketak egin ditzake ere!



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none">Espazioaren ezagutzeaX eta Y ardatzekin aritzea	Dizplinar-tekoak <ul style="list-style-type: none">Matematika OK2 Metadiziplinarrak <ul style="list-style-type: none">Ikasten ikasti OK8	<ul style="list-style-type: none">Beebot robotaPlano alfonbra

Aukera gehiago

- Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke.
- Dadoa edo ausazko beste jolas bat erabil daiteke, robota nori pasa erabakitzeko.
- Maparen gainean kaxa edo bestelako objektuak jar ditzakegu, robotaren ibilbidea gehiago mugatzeko.